



1. Arre kon, kon-kon

Denok ezagutzen ditugu erritmo baten baitan haurrak kulunkatzeko jolasak, hizkuntza guztietan antzeko aitzakiak erabiltzen baititugu beraiek estimulatzeko. Bere gorputzarekin jolasean, bere izaeraren kontzientzia hartzen lagunduko diogu: astindu, kulunkatu, kilimak egin, atzamarrak zenbatu, txaloak egin... Horiek guztiak behar ditu haurrak bere zentzumenak garatu, gorputzadarren eitea sendotu, eta mugimendua koordinatzeko. Haur txikiek behar dituzten zainketen artean kokatzen ditugu jolas hauek, eta hauekin batera eskaintzen diogun hizkuntz egitura erritmoduna baita ere: gero, haurraren hizkuntzaren oinarrian geratuko dena, intonazioa, fonologia...

Tikirriki ttona kantuarekin erakutsi zigun Joan Mari Lekuonak., haurra sehaskatik atera eta airean dantzan jartzen. [Beste jolas batzuk](#) ere entzun eta ikasi ditzakezu gure webgunean.

2. Datuekin bueltaka

Iazko ikasturtean gurasoei zabaldu genien galdekizunetan, hauek agerian utzi zituzten hainbat joera, iritzi eta nahi, haurren irakurketa ohiturei buruz zer hausnartu eskaintzen dutenak. Gurasoek aitortzen dituzten jokabideak kontutan izanda, gure gizartean irakurketa ohitura zenbait noraino errotoak dauden pentsatu arazten digu. Galdekizun hauetan, guraso gehienek aitortzen dute irakurketa modu goiztiarrean suspertzeak duen garrantzia, eta haurraren garapenerako honek dakarren onurak. Baina helduok ba al ditugu haur literaturari buruzko irizpiderik? Kalitatezko liburuak ezagutzen al ditugu? Azkenik, gai hauen inguruan ba al dago informazio biderik? Gurasoek ezagutzen al dituzte?

Biltzen ari garen datuekin gure egitasmoa indartzen ari gara, edukiak berrikusiz, eta gure ekimenetan sakonduz, ahal dugun neurrian behintzat. [Gehiago irakurri.](#)

3. Egitasmoa Donostian

Ikasturte honetan, lehenengo aldiz, hiriburu bat hasi da egitasmoarekin martxan, [Donostia](#) hain zuzen ere. Gainera, berritasun bezala baita ere, hezitzaileen prestakuntza Hezkuntza Sailaren Garatu programari esker eskaini ahal izan dugu. Oraingoz, Haur Liburutegi Nagusia eta zentroko sei ikastetxe ari dira parte hartzen.

Martxoan [gurasoentzako prestakuntza](#) abian da, Pello Añorga, Juan Kruz Igerabide eta Juan Karlos Alonsoren eskutik.

4. Ongi pasatzeko

Iparrameriketako nabajo indixuek euren aberastasuna ezagutzen dittuezen kantuen arabera neurtzen dabe. Esaldi eder horrek ematen dio hasiera [...eta kitto!, Eibarko euskara elkarteak](#) 2010ean argitaratu zuten [Lapikotxiki](#) liburuari. Estibalitz Gonzalez Solozabalen lan luze eta sakonari zor diogu kantu eta jolas bilduma eder hau. Haur txikiaren garapenari heltzen dio, eta unez une lotzen du kontakizun hari xehe baten bidez. Une bakoitzean, kantu bat, jolas bat, mimo bat... Horiek denak bizkaieraz, eta herri askotan bilduak; eta beste hainbeste ahotsetan kontatu eta kantatuak. Talde handia bildu du Estibalitzek bere inguruan, lan sakon eta serioa aditzera emanaz. Liburuarekin batera DVD bat dator. Bertan ikus daiteke jolasak nola egin, kantuen partiturak eta hitzak, eta hainbat komentario kantuari tokia egiteko.